

Galeuska.- Balizko ekimenak

Agian ondo legoke ekitaldi txiki asko egitea, kolore handiko sentsazioa emateko; ekitaldi garestiak ez baina bai gustu onez eginak, eta egun berean burutzekoak, Donostiako Antzoki Zaharrean adibidez. Ez dakit... Donostiako Alde Zaharreko pintxo-barra eder batean aurrean egoteak eragiten digun inpresio berbera lortzeko: joritasuna, irudimena, barietatea, aniztasuna, gutizia, kalitatea, irrika...

1) “Zauri zaharrak ezin itxi”.- Zauri zaharretan hatz eta hatz aritzearen aldekoa ez banaiz ere, onartu beharra dago kategoria bereko sufrimendua jasan duten gizabanakoen zein giza taldeen arteko lotura estutzen laguntzeko, halako egoerak ezagutu zituztenei eginiko omenaldiak eta gorazarreak bezalakoak ezin hobekak direla edo, behintzat, oso eraginkorrak gertatzen direla, zentzu horretan. Eta Galeuskan aktore diren hiru herrialdeen arteko loturak areago batzea xede izanik, 1936ko Gerra Zibilean hiru herrialde horietako idazle banak jasandako indarkeriaren ondorioz biktimatzat jotzeko modukoak lirakeenak omentzea proposatzen dut. Gure kasuan, Aitzol, adibidez... Dena den, ideia hau ez dut planteatzen ardatz nagusi modura, ekitaldien barruan egitekoa izan daitekeen ekitaldi bat gehiagoren modura baizik.

2) “Txinpartak”.- *Txinparta* hauek antzoki gutxi argiztatu batean burutzekoak izango lirake (txinparta asko ateratzen dituzten bengalatxo horietakoak ditut gogoan bereziki, erabat kaltegabeak direnak eta berrogei bat segundu-edo besterik irauten ez dutenak). Txinpartak niretzat inspirazioaren konnotazioa du, arnasgora sinbolizatzen du, “txispa alegia”, zeren azken finean inspirazioa da arte-prozesu orotan nagusitzen dena; izan ere, inspirazio edo arnasgorarik gabeko artelana zer da, teknika hutsa baizik? Itzulpengintza teknika itzela izan daiteke teknika aldetik, baina horrek ez du arte bihurtzen, horren atzean arnasgorarik (senetikoa kenduta) ez dagoelako. Ez dakit, ideia bat da, besterik gabe. Bengalatxo piztu, atrilean utzi, eta ahitu artean norbaitek erdi ilunpean testu labur bat irakurriko luke, eta bengalatxo guztiz agortu baino lehen bukatu. Hori da ideia.

3) “Herri-truk”.- Hartu hiru musika-tresna, hirurak ari garen hiru herrialdeetako folkloari lotuak, herrialde bakoitzeko musika-tresna bat: txalaparta, gaita eta kataluniako musika-tresna enblematikoren bat. Eta euskaldun batek gaitaren soinu leuna fondo gisa duela testu bat irakurriko luke; galiziar batek txalapartaren soinuak lagun beste testu bat irakurriko luke, galegoz; eta Kataluniakoarekin ere beste horrenbeste. Hori da ideia. Soinu suabeak beti, testuari laguntzeko, ez testua jateko.

4) “Goi-asmu”.- Jarraian, gauza bera, baina oraingoan musika-tresna klasiko bat (klarinetea, zeharkako txirula, perkutsio suaberen bat...) erabiliz, solo baten laguntzaz testu labur batzuen irakurketa egiteko. Folklorea ez ezik, klasikotasuna ere begitik galtzen ez dugula argi eta garbi gera dadin.

5) “Zuk niri nik zuri”.- Galeuscaz ari garenez, garbi dago hiru herrialdeetako literatura sustatzea dela helburu nagusia. Idazle katalan, galiziar eta euskaldunen lanak ezagutzera emateko bideak zabaltzean datza ekimena, ezta? Noski, hori jada ez da egun bateko ekimena, urtearen barruan egitekoa baizik. Itzulpengintza sartzen da hor. Agian, bide bat izan daiteke itzulpenak idazleek eurek egitea. Hau da, Kataluniako idazle batek (A) euskal idazle baten (B) testu bat itzuliko luke, eta trukean, idazle euskaldun horrek (B) idazle katalan haren (A) beste zerbait itzuliko luke. Idazleak binaka elkartu alegia, eta

“zuk niri eta nik zuri” dinamikaren barruan hasi testu batzuk itzultzen. Zein kopurutan? Beno, idazle-bikote kopuruaren arabera. Arazoa hizkuntza-jokoak ezagutzea da. A-k ez baldin badaki euskaraz edota B-k ez baldin badaki katalanez... Hala ere, prosaren kasuan, behintzat, gaztelera zubi-hizkuntza gisa erabil daiteke. Gero, testuak paperean edo pdf artxiboetan argitaratzen diren, edota batzuk liburu formatuan eta beste batzuk pdf formatuan ateratzen diren... ikusiko litzateke. Den-dena ez da beharrezkoa –ezta komeni ere– euskarri tradizionalen argitaratzea. Agian, Idazleen Elkarteak zuzentze-zerbitzu bat eskain lezake, itzulpenei azken ukituak ematen laguntzeko eta itzulpenak ahalik eta txukunen eginak daudela bermatzeko.

6) “Hizkuntzaz haratago”.- Hau ere, adibidez, Antzoki-Zaharrean. Hiru aktore: euskaldun bat, katalan bat eta galiziar bat. Bakoitzak bere hizkuntzan hitz egingo duenez, publikoak ezer gutxi ulertuko du (tarteka ez bada edota baten batek euskaraz, galizieraz eta katalanez jakin ezik);hala eta guztiz ere, egoeratik edo testuinguratik, publikoak beti jakingo du (irudikatuko du) zer ari diren esaten.

7) “Hitz eta irrit”.- Aurreko puntuan esan duguna baina oraingoan juxtu kontrako asmoarekin, hau da, hizkuntzak direla-eta aldrebeskeriei bide emango dieten egoerak sortzea izango da antzerkitxo-lan honen helburua.

8) “Euskara-Katalana-Galiziera oinarrizko hizkuntza gida”.- Oraingoan, hiru hizkuntzotan ezagutu beharreko hiztegi-zerrendatxo bat eta esapiderik eta gramatikarik oinarrizkoena jasotzea izango litzateke helburua.

Eta abar, eta abar...